



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO MARTXOAREN SEKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.03.05.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.
Zinegotziak:
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Juan M.Indacoechea Maiz jauna: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 3.-2017ko kontuak :aldeko txostena.
- 4.-Alkatearen ebazpenak.
- 5.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2018ko otsailaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna ateri da bilera aretotik.

2.- JUAN M. INDACOECHEA MAIZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Ikusirik Juan M. Indacoechea Maiz jaunak aurkeztutako eskaera, Ziarutxiki alderdian dauden zuhaitzen (gaztainak, lizarrak, akaziak) probetxamendua egiteko (entresaka, 3. poligonoko 49., 50. eta 51. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M.Indacoechea Maiz jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordioa hau eskatzaileari jakinaraztea.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna itzuli da bilera aretora.

3.-2017KO KONTUAK:ALDEKO TXOSTENA.

Ikusirik 2017ko ekitaldiko kontuen espedientea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2017ko ekitaldiko kontuen espedienteari aldeko txostena ematea.

2) Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunez, iragarki hau herriko taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

4.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 17. ebazpenetik 24. ebazpena arte.

5.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

6.-EMAKUMEEN EGUNA.

Urtero bezala 2018ko martxoaren 8an emakumeen eguna izanen da.

Ikusirik aurten greba deialdia egin dela eta planto egiteko proposatu ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek bat egitea egun horrekin eta eginen diren ekintza guztiekin.

7.-2018KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

2018ko abenduaren 1an Udal honek onartu zuen Angel Urtxegi Telletxea jauna mailaz igotzeko prozedura hastea.

Kontuan hartuz plantilla organikoaren aldaketa egitea beharrezkoa dela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan 236.ari dagokionez xedatutakoari jarraituz,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Plantillaren aldaketa hasiera batean onartzea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2) Espedientea idazkaritzan ikusgai jartzea, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

8.-EMAKUMEENTZAT MUSIKOTERAPIA TAILERRA.

Ikusirik Haizea Loira Matxiñena andreak aurkeztutako proposamena, emakumeentzat musikoterapia tailerra emateko.

Kontuan hartuz 2018ko aurrekontuan ez dagoela aurreikusi horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Haizea Lorea Matxiñena andreaki aipatutako proposamena ez onartzea, aipatutako arrazoiarengatik.

9.-KATASTROKO ALDAKETAREN ONESPENA.

Ikusirik Arantzako katastroan hainbat akats daudela.

Kontuan hartuz Rafael Artola Azpeitia jaunak aurkeztutako katastroko aldaketa, dagoen bide publikoa agertzeko eta ukitzen dituen lurzatiak zuzentzeko (1. poligonoko 56., 57., 59., 60., 61., 64., 121., 122., 130., 131., 132., 133., 134. eta 206. lur zatiak).

Ikusirik partikularraren teknikoak igorritako neurketa eta planoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako aldaketak onartzea, bide publikoa eta ukitzen dituen lur zatiak ondo jasota uzteko katastroko planoetan.

2) Katastroan aldaketa egiteko eskatzea Nafarroako Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuari.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.



